



EUSKARALDIA

Euskaraldia ate joka dugu dagoeneko eta Laudio Ikastolan ekimen ezberdinak garatuko ditugu euskararen erabilpena sustatu nahi duen ariketa sozial hau hauspotzeko.

Langile eta familiei ahobizi edo belarriprest rolaekin parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu.

Bide errazena on-line duzue, www.euskaraldia.eus web orriaren bidez. Horrez gain, Aiaraldea osoan izena emateko papereko formularioak ere etxe guztietara bidaliko dira eta Ikastolan bertan postontziak izango ditugu zuen izen-emateak batzeko.



BIDALIGUZU AHOBIZI EDO BELARRIPREST ARGAZKIA

Ikastolan Euskaraldian arituko garen pertsona guztion argazki sorta osatu nahi dugu. Langileon artean ekimena martxan dugu dagoeneko eta gurasoei ere erronka luzatu nahi dizuegu.

Animatu Euskaraldian parte hartzen eta bidali aukeratu duzun rola adierazteko argazkia. Ikasleek prestatutako ahobizi eta belarriprest ikurrak erabili ahal izango dituzue horretarako. Argazkiak ahobizi@laudioikastola.eus eta belarriprest@laudioikastola.eus posta elektronikoen jasoko ditugu azaroaren 10 arte.

EROSI EUSKARALDIKO BANDEROLA ETA KAMISETAK AIARALDEKO DENDA DIGITALEAN. ESKAERA IKASTOLAN JASO NAHI BADUZU, OHARRETAN ADIERAZI.

eskaera egin 

